



## Bilboko Hezkuntza Fakultateko protokoloa COVID-19 (SARS-CoV-2) birusaren osasun alertarako

**Fakultateko batzarrak onartua: 2020-10-27**

**Eguneratzea: 2020-10-13**

## Aurkibidea

1. HELBURUA	3
2. FAKULTATEKO COVID19 BATZORDEA	3
3. AURRETIAZKO GOGOETAK	3
4. ERAIKINERA SARTU ETA IRTETEKO JARRAIBIDEAK	3
5. NEURRI OROKORREN IKASLEENTZAKO DEKALOGOA	4
6. NEURRI OROKORREN IRAKASLE-IKERTZAILEENTZAKO ETA AZPko LANGILEENTZAKO DEKALOGOA	5
7. FAKULTATEKO KIDEEN ARTEAN COVID-19 (SARS-COV-2) KASUREN BAT ANTZEMANEZ GERO EGIN BEHARREKOAK:	6
8. PRACTICUM ETA GRAL	8
9. IRAKASKUNTZAN HARTU BEHARREKO BABES-NEURRIAK	9
10. GELAK EGURASTEA	9
11. FAQ. Maiz egiten diren galderak	10

## 1. HELBURUA



Protokolo honetan jasotzen dira Bilboko Hezkuntza Fakultateak (UPV/EHU) prestatu dituen neurriak eta jarraibideak COVID-19 (SARS-CoV-2) birusak eragindako osasun alerta dela eta.

Protokolo hau etengabe eguneratuko da gaixotasunaren eboluzioaren eta informazio berriaren arabera eta agintariek ematen dituzten jarraibideekin bat etorritik.

## 2. FAKULTATEKO COVID19 BATZORDEA

2020ko irailaren 28an onartutako COVID19 Batzordea hurrengoa da:

- JOANA JAUREGIZAR (arduradun/ responsable)
- ASIER ROMERO
- AINARA ROMERO
- MARIA JOSE LOMAS

Batzordearekin harremanetan jartzeko hurrengo helbide elektronikora idatzi: [bhf.covid19@ehu.eus](mailto:bhf.covid19@ehu.eus)

## 3. AURRETIAZKO GOGOETAK

Bilboko Hezkuntza Fakultateko kide guztion erantzukizuna da kontuan hartzea UPV/EHUK berak prestatutako neurriak eta jarraibideak COVID-19 dela eta. Jarraibide horiek [hemen](#) kontsulta ditzakezu, eta komeni da horietara maiz jotzea, etengabe eguneratuko direlako.

Aipatutako jarraibideak gure fakultatera egokitzeke, honako hauek dira gure ikastegian ezarri ditugun neurri gehigarri batzuk:

## 4. ERAIKINERA SARTU ETA IRTETEKO JARRAIBIDEAK

### Eraikinerara sartzea

3.1.- Ikasleak **ate nagusitik** sartuko dira ikastegira. Pilaketak saihesteko, mailaka sartuko dira ikasturte desberdinetako ikasleak.

3.2.- Irakasle-ikertzaileak eta AZPko langileak ate nagusitik ere edo garajetik sartuko dira, eta txartela erabiliko dute BETI horretarako.

### Irtetea

3.3.- Kafetegi ondoko atetik irtengo da.

3.4.- Irakasle-ikertzaileen kasuan, kafetegi ondoko atetik edo garajetik irtengo dira.



## 5. NEURRI OROKORREN IKASLEENTZAKO DEKALOGOA

- 1.- Zaindu beti segurtasun distantzia eta ibili ikastegian seinalizatuta dauden zirkulazio ibilbideetatik. Sartu eraikinera ate nagusitik eta irten kafetegi ondoko atetik, jendea sarreran pilatu ez dadin.
- 2.- Gomendatzen da ikasgelan beti leku berberean esertzea, kontaktu kopurua murrizteko kutsatze kasuan. Debehatuta dago mahaiak eta aulkiak mugitzea arrazoi sendorik ezean (irakaslearen baimena beharko da).
- 3.- Igogailuak banan-banan erabiliko dira, eta lehenasuna izango dute mugikortasun urriko pertsonak eta karga/deskarga lanek.
- 4.- Maskara ondo erabili behar duzu beti, fakultatearen gela eta instalazio guztietan, jangela, kafetegia, leku komunak eta ikasteko gelak barne. Hirugarren solairuko mintegiek (3S01M, 3S02M eta 3S03M) zabalik jarraituko dute ikasleentzat, segurtasun neurri guztiak hartuta beti.
- 5.- Oraingoan, ezin izango da erabili ikasleen erabilera libreko informatika gela. Gainera, informatika gelaren aurrean dagoen ikasketa gela (OS05IG) irakaskuntza gela bihurtu da ikasturte honetan, eta, beraz, ezin izango da erabili ikasketa gela balioaniztun gisa.
- 6.- Ezin izango dira erabili ez lehen solairuko atsedeen eremua ez hall nagusiko sofak, ezin dugulako bermatu haien desinfekzio egokia.
- 7.- Komunak banan-banan erabili behar dituzue, eta, erabili aurretik, eskuak garbitu urez eta xaboiz edo gel hidroalkoholikoarekin. Komunetako ateak zabalik egongo dira, ateen heldulekuak gehiegi ez ukitzeko. Komunetan, eskuak lehertzeko papera ipini da, erabili ondoren paperontzira botako dena.
- 8.- Soilik erabili ahal izango da SAREPRINT zerbitzuko fotokopiagailua, tailerren korridorean dagoena. Erabili ondoren, pertsona bakoitzak pantaila garbitu beharko du, fotokopiagailuaren ondoan jarriko dugun produktua erabilia. Faborez, erabili produktu hori modu egokian, baita eskuetarako gela ere, guztion segurtasuna dagoelako jokoan.
- 9.- Jangela nagusia zabalik egongo da eta vending makina erabili ahal izango da. Gutxienez 1,5 metroko segurtasun-tartea bermatu behar da bazkaltiarren artean. Jangelara 20 minutuko txandaka sartzea gomendatzen da. Ez da mikrouhinik, harraskarik edo hozkailurik erabiliko. Likidoak eta solidoak hartzeko soilik ez da erabili beharko maskara. Tresneria edo mahai-tresnak ezingo dira garbitu zentroan. Erabilitako elementu komunak garbitzeko eta desinfektatzeko lanetan laguntzea eskatzen da.
- 10.- Guztiz debehatuta dago sukalde tresneria (edalontziak, mahai tresnak, platerak) ateratzea fakultateko kafetegitik, kanpoko terrazara izan ezik.



11.- Fakultatearen kanpoaldean (kafetegiaren aurrean bereziki), 1,5 metroko segurtasun distantzia gordeko da eta ez da 10 lagun baino gehiagoko talderik osatuko.

12.- Garrantzitsua da zuen laguntza elementu komunen garbiketa eta desinfekzio lanetan. Horretarako, arren, har itzazue kontuan irakaslearen argibideak.

## 6. NEURRI OROKORREN IRAKASLE-IKERTZAILEENTZAKO ETA AZPko LANGILEENTZAKO DEKALOGOA

1.- Zaindu beti segurtasun distantzia eta ibili ikastegian seinalizatuta dauden zirkulazio ibilbideetatik. Sartu eraikinera ate nagusitik edo garajetik, eta irten kafetegi ondoko atetik edo garajetik, jendea sarreran pilatu ez dadin.

2.- Igoailuak banan-banan erabiliko dira, eta lehenasuna izango dute mugikortasun urriko pertsonak eta karga/deskarga lanek.

3.- Maskara ondo erabili behar duzu beti, fakultatearen gela eta instalazio guztietan, jangela, kafetegia, leku komunak eta ikasteko gelak barne. Hirugarren solairuko mintegiek (3S04Mtik 3S08Mra) eta bigarrenengoak (2S06M, 2S07M eta 2S08M) zabalik jarraituko dute irakasle-ikertzaileentzat eta AZPko langileentzat, segurtasun neurri guztiak hartuta beti.

4.- Ezin izango dira erabili ez lehen solairuko atsedeen eremua ez hall nagusiko sofak, ezin dugulako bermatu haien desinfekzio egokia.

5.- Komunak banan-banan erabili behar dituzue, eta, erabili aurretik, eskuak garbitu urez eta xaboiz edo gel hidroalkoholikoarekin. Komunetako atea zabalik egongo dira, ateen heldulekuak gehiegi ez ukitzeko. Komunetan, eskuak lehertzeko papera ipini da, erabili ondoren paperontzira botako dena.

6.- Irakasleen eta AZPko langileen jangela zabalik egongo da (0S09G), eta jangela nagusia irekiko da. Gutxienez 1,5 metroko segurtasun-tartea bermatu behar da bazkaltiarren artean. Jangelara 20 minutuko txandaka sartzea gomendatzen da. Ez da mikrouhinik, harraskarik edo hozkailurik erabiliko. Likidoak eta solidoak hartzeko soilik ez da erabili beharko maskara. Tresneria edo mahai-tresnak ezingo dira garbitu zentroan. Erabilitako elementu komunak garbitzeko eta desinfektatzeko lanetan laguntzea eskatzen da.

7.- Guztiz debekatuta dago sukalde tresneria (edalontziak, mahai tresnak, platerak) ateratzea fakultateko kafetegitik, kanpoko terrazara izan ezik.

8.- Bulegoa partekatu ahal izango da, baldin eta lanpostuen artean 1,5 metroko segurtasun distantzia bermatzen bada. Horretarako, altzariak mugitu ahal izango dira, edo lan txandak antolatu bulegoa erabiltzen duten pertsonen artean.

9.- Ahal bada, ez partekatu materialik edo objekturik lankideekin, eta, egin behar



izanez gero, erabili gel hidroalkoholkoa eta garbitu partekatutako materiala soluzio desinfektatzaile batekin. Garbi eduki zure objektu pertsonalak (telefonoa, gailu elektronikoak...) eta besteekin partekatzen dituzun gauzak eta gainazalak.

10.- Saia zaitetz kontaktuak murrizten, tresna telematikoak erabilia bilerak eta irakaskuntzakoak ez diren jarduerak egiteko. Nolanahi ere, gomendatzen dizugu lanaldian zurekin kontaktuan egongo diren pertsonen jarraipena egitea.

11.- Garrantzitsua da zuen laguntza elementu komunen garbiketa eta desinfekzio lanetan. Horretarako, faborez, zuen laguntza eskatzen dizuegu zeregin horietarako, baita ikasleen inplikazioa ere.

## 7. FAKULTATEKO KIDEEN ARTEAN COVID-19 (SARS-COV-2) KASUREN BAT ANTZEMANEZ GERO EGIN BEHARREKOAK:

### 7.1. Sintomak fakultatean

Sintomak fakultatean agertzen badira, 0S08G ikasgelara joan behar duzu, inoren ondoan gelditu gabe. Deitu telefonoz (946017509) dekanotzara, deitu lehen arretako zure zentrora eta bidali email bat gure ikastegiko COVID arduradunari: [bhf.covid19@ehu.eus](mailto:bhf.covid19@ehu.eus).

Larri bazaude edo ezin baduzu arnasa ondo hartu, arduradun horrek berehala deituko du 112 zenbakira.

### 7.2. Ikasle bakartua

Protokoloak\* hauxe dio:

1. Ikasleak fakultateko COVID arduradunari ([bhf.covid19@ehu.eus](mailto:bhf.covid19@ehu.eus)) abisatu behar dio. Azaldu behar dio nola dagoen, eta egoerari aurre egiteko informazioa eman behar dio: besteak beste, gradua, ikasturtea, taldea, erreferentziazko gela eta harremanetarako datu pertsonalak.
2. COVID arduraduna harremanetan jarriko da ikaslearekin, haren egoera egiaztatzeko.
3. COVID arduradunak egoeraren berri emango dio dagokion moduluko koordinatzaileari.
4. Moduluaren koordinatzaileak informazioa helaraziko die irakasleei.
5. Irakasleek kontuan hartuko dute ikaslearengandik jasotako informazioa eta UPV/EHUren protokoloaren irakaskuntza eskakizuna: "Bakartuta egongo den ikasleak irakaskuntza laguntza jasoko du, aintzat harturik beti irakasgai bakoitzaren ezaugarriak eta berezitasunak".

\*Oharra: Egoera hau 2-3 egun luza daiteke.



### 7.3. Ikasle batek PCR positiboa

Osasun zerbitzuak eskatuko dizkio hurbileko kontaktuen datuak. Zerbitzuak erabakiko du nor bakartu behar den eta nori egin PCR proba.

Ikasleak COVID arduradunari abisatuko dio ([bhf.covid19@ehu.eus](mailto:bhf.covid19@ehu.eus)). Bakartuta egongo denez, aurreko atala aplikatuko da.

### 7.4. Irakasle bakartua

Protokoloak hauxe dio: irakasleak COVID arduradunari ([bhf.covid19@ehu.eus](mailto:bhf.covid19@ehu.eus)), EHUko Prebentzio Zerbitzuari ([medikua@ehu.eus](mailto:medikua@ehu.eus)) eta bere saileko zuzendaritzari abisatuko die.

Ikasleek klaseak jaso behar dituzte. Irakaslearen ardura izango da ikasleek klaseak jasotzea (klaseak beste irakasle batekin aldatuz, online emanez, irakats lana adostuz saileko beste irakasle batekin).

Klaseak online badira, etxetik edo fakultatetik (horretarako ezarritako ikasgelan) jarraituko dituzte ikasleek. Fakultatetik izanez gero, irakasleak atezaintzari abisatuko dio.

### 7.5. Irakasle batek PCR positiboa

Osasun zerbitzuak eskatuko dizkio hurbileko kontaktuen datuak. Zerbitzuak erabakiko du nor bakartu behar den eta nori egin PCR proba.

Irakasleak COVID arduradunari abisatuko dio ([bhf.covid19@ehu.eus](mailto:bhf.covid19@ehu.eus)), EHUko Prebentzio Zerbitzuari ([medikua@ehu.eus](mailto:medikua@ehu.eus)) eta bere saileko zuzendaritzari. Sailean laneko baja bezala kudeatuko da.

## 8. PRACTICUM ETA GRAL

Practicumean, aintzat hartuko da "Covid-19aren agertokiari dagokion jarduketa protokoloa". Hala eta guztiz ere, nahitaez bete beharko da praktiken zentroak/dagokion erakundeak hitzartu eta jakinaraziko duen araudia.

Hala, protokolo hau beteko da:

### 7.1. Ikasle isolatua:

1. Ikasle isolatuak Fakultateko COVID arduradunari ([bhf.covid19@ehu.eus](mailto:bhf.covid19@ehu.eus)) jakinarazi behar dio zer egoeratan dagoen, gradua, praktika-zentroa eta harremanetarako datu pertsonalak barne. Era berean, praktika-zentroko tutoreari jakinaraziko dio. Kasu positiboa bada (Covid19), ikasleak



praktika-zentroko datuak emango dizkio Osakidetzako arakatzaileri, dagokion miaketa egin ahal izateko.

2. COVID arduraduna ikaslearekin harremanetan jarriko da eta bere egoera baieztatuko du.

3. COVID arduradunak egoera horren berri emango dio Fakultateko practicumeko koordinatzaileari. Practicumeko koordinatzaileak informazio hori helaraziko die Fakultateko irakasle-tutoreari eta praktika-zentroari.

## 7.2. Zer egin praktika-zentroan isolamendurik badago?

1. Praktika-zentroan Covid19 kasu positiboren bat egon bada, praktika-zentroak osasun-agintariei jakinaraziko dizkie harreman estuak, eta horien artean Bilboko Hezkuntza Fakultateko praktika-ikasle bat egon ahal izango da.

2. Osakidetzaren argibideei jarraituz, ikaslea isolatua bada, ikasleak goian adierazitako jarraibideei jarraituko die.

## 9. IRAKASKUNTZAN HARTU BEHARREKO BABES-NEURRIAK

Hurrengo atalean, irakaskuntza-jardueretan kontuan hartu beharreko babes-neurri orokorrak zehazten dira. Hala ere, 2020-2021 ikasturtea planifikatzeko orientabide guztiak Fakultateko weborrian dagoen "IRAKASKUNTZA ETA IKASKUNTZA PLANIFIKATZEKO ORIENTABIDEAK" dokumentuan aurki ditzakezue.

### 9.1. Irakaskuntza ikasgeletan, laborategietan eta tailerretan

Ahal den neurrian, ikasleek ez dute materialik eta tresnarik partekatuko. Ikasleek berek garbituko dute materiala eta instalazioa, talde aldaketa egin behar denean edo talde bereko beste pertsona batek erabili behar duenean, desinfektatzailez bustitako papera erabiliz horretarako. Halaber, komeni da eskuak garbitzea materiala ukitu aurretik, gero beste norbaitek erabili behar badu. Laborategira edo tailerrera sartzean eta handik irtetean, eskuak garbituko dira nahitaez. Gainera, ikasgela guztietan, desinfektatzailea eta papera egongo da ordenagailuaren ondoan, teklatura eta sagua desinfektatzeko.

### 9.2. Jarduera fisikoen irakaskuntza

Irakasleek eta ikasleek nahitaez erabiliko dute maskara, ariketa fisiko bizia egitean izan ezik (21/2020 ELDren 6.2 artikulua). Gimnasioan eta aire zabalean, ariketa fisiko bizia egiteagatik maskararik erabili behar ez denean, 2 metroko segurtasun





distantzia gordeko da gutxienez. Gimnasioa maiz egurastuko da, eta instalazio bakoitzaren protokoloa beteko da beti.

## 10. GELAK EGURASTEA

Airearen zirkulazio mekanikoa jarri da martxan ikasgela guztietan, eta atezainek gelen leihoak zabalduko dituzte goizero, komeni delako ere leihoak irekitzea. Ezin bada goizetan ireki, ahal bezain laster egingo da.

## 11. FAQ – MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

Protokolo honen aplikazioan sor daitezkeen zalantzak argitzeko, kontuan izan:

Zer egin egoera jakin batzuetan:

1. Protokoloa bete da: ikasleak abisatu dio fakultateko COVID arduradunari, arduradunak egoeraren berri eman dio moduluaren koordinatzaileari, eta honek informazioa helarazi die moduluko irakasleei.

- Protokoloak adierazi bezala, ahal den neurrian, irakasleak ikasleari lagundu behar dio, honek klasea jarraitzeko modu bat edo beste izan dezan (lanak bidaliz, BBC bidez konektatzeko aukera eman... ). Irakasle bakoitzak ikusiko du zein den aukerarik onena, baldin eta aukerarik badago, ikasleak dagokion saioan parte hartzeko moduan izan dezan.

2. Ikasleak irakasleei abisatu die klase aurretik, baina irakasleak ez du informaziorik jaso moduluaren koordinatzailearengandik.

- Irakasleak ikasleari esan behar dio protokoloa betetzeko eta COVID arduradunari abisatzeko. Badaezpada, komeni da ikasleari laguntzea. Modulu koordinatzailearengandik abisurik jasotzen ez bada (zentzuzko tarte batean\*), ez dago zertan kontuan hartu ikaslearengandik zuzenean jasotako abisua.

3. Ikasleak irakasleei abisatu die klasearen ondoren.

- Irakasleak ikasleari esan behar dio protokoloa betetzeko eta COVID arduradunari abisatzeko. Ez zaio zertan galdutako klasea berreskuratzeko aukera eman.

## COVID19 DELA ETA, BALIZKO KONTAKTU ESTUA IZATEARI BURUZKO ZENBAIT ZALANTZA ARGITZEKO:

UPV/EHUren protokoloaren arabera (funtzionamendurako neurriak, 3-6 or.),



Ezin izango dira ikastegira edo unibertsitate instalazioetara sartu COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak, gaixotasuna diagnostikatuta izanik isolamendu aldia amaitu ez dutenak edo etxeko koarentenan daudenak kontaktu estua edukitzeagatik COVID-19 diagnostikoa edo sintomak zituen pertsona batekin, ezta proba diagnostikoen emaitzaren zain daudenak ere.

Osasun Publikoko Zerbitzuak eta Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak erabakiko dute ikastegiko langileak (irakasle-ikertzaileak eta AZPko langileak) kasu baieztatuaren kontaktu estutzat hartu behar diren, kontuan izanik prebentzio neurrien egokitasuna eta jarraipena, eta eginiko jarduerak.

Kontaktu estutzat hartzen dira kasu baieztatuarekin harreman estua (1,5 metro baino gutxiago, 15 minutu baino gehiago, babes neurririk gabe) izan duten pertsona guztiak (senideak, bizikideak eta langileak), harreman hori izanik sintomak agertu baino 48 ordu lehenagotik (edo diagnostikoa baino 48 ordu lehenagotik, asintomatikoen kasuan) kasua isolatua izan den unera arte.

Osasun agintariek kontaktu estuen jarraipen aktiboa egingo dute, eta pertsona hauek etxean geldituko dira koarentenan, Osasun Sailaren COVID-19 Zaintza Epidemiologikoko protokoloak ezarri moduan. PCR probei dagokienez, Osasun Publikoko agintarien protokoloetan agindutakoak egingo dira.

### **Beraz, zer da eta zer ez da "kontaktu estua" izatea?**

1- OSASUN-AGINTARIEK KONTAKTU ESTUTZAT JOTZEN DUTEN PERTSONA da kontaktu estua.

2- OSASUN-AGINTARIEK "KONTAKTU ESTUA" DEITZEN BADIOTE; OSASUN-ZENTROTIK HELARAZTEN ZAIZKION OSASUN- ETA LAN-JARRAIBIDE GUZTIAK bete beharko ditu.

3- PERTSONA BATEK BERE BURUARI KONTAKTU ESTUA ESATEN BADIO, HORREK EZ DU BERE LANPOSTURA JOATETIK SALBUESTEN, OSAKIDETZAK KONTRAKOA JAKINARAZTEN EZ BADU (ikus 1. eta 2. puntuak), kasu horretan, UPV/EHUren protokoloaren arabera.

"... beren egoeraren berri emango diote beren sailaren zuzendaritzari, irakasle-ikertzailea izanez gero, Zerbitzu buruari, AZPko langileen kasuan, edo Dekanotza/Ikastegi Zuzendaritzari, ikasleak izanez gero. Kasu guztietan, egoeraren berri emango zaie ere ikastegi/sekzio/eraikineko COVID-19 arduradunei." (6-7 or.).

4.- Zalantzarik izanez gero, zure osasun-zentroarekin eta UPV/EHUko prebentzio-zerbitzuarekin harremanetan jartzea gomendatzen da: <https://www.ehu.eus/es/web/prebentzio-zerbitzua>



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA  
FACULTAD DE EDUCACIÓN DE BILBAO

\*Dokumentu hau egokituz joango da egoeraren bilakaeraren arabera. Edonola ere, eguneratuta aurkituko duzue fakultatearen web orrian.